

**2020KO APIRILAREN 30EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamar.

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hogei.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak eta hamar

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- AITOR ALDASORO ITURBE
- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- MADDI IMAZ RUIZ
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTAK. Aurreko akten onespena: 2020-02-27, 2020-03-10 (hauteskunde-mahaiaren zozketa) eta 2020-04-08.

Ezagutzera eman ondoren, 2020-02-27, 2020-03-10 (hauteskunde-mahaiaren zozketa) eta 2020-04-08, aktak, aho batez onartu dira beraiekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

- KREDITU ALDAKETA. 2. KREDITU GEHIGARRIAREN ESPEDIENTEA. 2020CRAD0002

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena:

“Dolarea parkerako urbanizazio-obren gastua egin beharra izanik (kontusaila, 0350.601.153.20.05) eta hau finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 2. Kreditu gehikuntzen bidez 1.100.000,00 euroko zenbatekoaz eta kreditu gehigarrien guztiz finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen da.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

Jarraian Alkateak esan du, gerora etorriko dela proiektua onartzea eta obrak lizitzatzeko baldintza plegua onartzea. Horretarako ezinbestekoa da kreditua izatea.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- KREDITU ALDAKETA. 3. KREDITU GEHIGARRIAREN ESPEDIENTEA. 2020CRAD0003

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena:

“Igartzako boladizoa egiteko obren gastua egin beharra izanik (kontusaila, 0350.601.153.20.01) eta hau finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetza honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 3. Kreditu gehikuntzen bidez 350.000,00 euroko zenbatekoaz eta kreditu gehigarrien guztiz finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen da.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

Alkate jaunak esan du proiektuak ahalbidetzen duela norabide bikoitza berreskuratzea, Igartza Oleta eta Florencio Axpe kaleek gurutzatzen diren tokian radioa handitzea segurtasuna handitzeko. Oinezkoen eta txirrinduen gunea mantendu egingo litzateke. Pentsatzen dugu honekin Barrendain plazan eta Zapatari eta Nafarroa Etorbidea gurutzatzen diren puntuak sortzen diren arazo-puntuak konponduko direla.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) galdetu du ea kontutan izan den Dolarea parkea berritzearekin jolas toki gehiago izango dela eta, aurreikusi beharreko segurtasun neurriak eta honi guztiari buruz mugikortasun mahaiaren iritzia.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Mugikortasun mahaiak bere erritmoa darama eta lehen ere esan zen horregatik herriaren erritmoa ez dela gelditu behar. Obra hau egitea proposatzeko enpresa batekin ikerketa bat egin da eta ez da ikusten exekutatzeko arazoak sor ditzakeenik, lehen aipatu ditudan onurak baizik. Dolarea parkea ez du zertan umeena izan beharrik. Hori erabakitze dago. Errepide ondoan egoteak ez du esan nahi segurtasun neurriak bermatuko ez direnik.”

Hasier Agirre (Beasaingo EH Bildu): “Norabide bikoitza berriro izateari buruzko gure iritzia lehen ere azaldu genuen. Erabat aurka gaude. Ikerketa aipatu duzu. Gaizki ez banago Oriamendi kaleari eta orain eskuartean dugunari buruz, egin zen ikerketa hori. Kalterik ez zen ikusten baina onurak ere gutxi. Horri, mugikortasun mahaiak orain egiten ari den lana gehitzen badiogu, herrian osotasunean aztertzea izan da helburu. Harrigarria da proposamen hau egitea. Guretzat bi gauza horiek ez dira bateragarriak. Boladizoari buruz esan legezkoa bada ere, garai hauetan erreka inguruan horrelako eranskina jartzea ez diogula inolako zentzurik ikusten. Beraz, aurka bozkatuko dugu.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Nik galdetu nahi dut zer gertatuko den mugikortasun mahaiak orain hartzen ari diren neurri hauek guztiak edo Barrendainen, adibidez, egin nahi dena, ez baditu ontzat ematen edo esaten badu segurtasun neurriak ez direla betetzen. Neurri oso estrukturalerik ari gara. Badakit mugikortasun mahaiak prozesua luzatu dezakeela baina

guretzat ezinbestekoa da. Ikerketa horrek ez zuen baloratzen onura handia bezala norabide bikoitza. Jakin nahiko nuke udal aparejadorearen iritzia ere proiektu honi buruz. Nik uste dut aztertu egin beharko litzatekeela eta herritarrei ere galdetu nola ikusten duten aldaketa.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Beste aukera da ez egitea da eta horregatik dakarkigu. Iruditzen zaigu egin beharrekoa dela eta atzera buelta duela Mugikortasun mahaia aholku mahaia da, ez da erabakitzailea. Erabakitzeko gobernu batzordea eta plenoa daude. Beste gauza bat da aholku horretan esatea ematen ari diren pausoak ez direla egokiak. Norabide bikoitzarekin, txirrinduentzat edo oinezkoentzat dagoen azalera ez da jaten. Norabide bakarrera bueltatuko balitz ez du oztopo egiten. Barrendainen hesi batzuen bidez proba egingo da. Mugikortasun mahaiaren aholkua ezezkoa balitz, atzera pausoa eman beharko da.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Beno baino zuk zeuk esan duzu. Erabakiak hartuko dira hartu behar diren tokian, hemen orain hartzen ari zareten bezala, hamar boto izanda eta oposizioaren iritzia kontuan hartu gabe. Ez dago txosten teknikorik zuena abalatzen duenik.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Gure kasuan bai, LEBER enpresak egindakoa eta honek gehiago esaten du: ikusita Beasaingo ondasuna non dagoen, norabide bikoitza izatea arrazoitzen zuen. Esaten zuen herri askotan horrelako arrazoietan oinarrituz hartzen zirela erabakiak, hain zuzen ere, herrira, toki txukunetik sartzea. Horregatik hartzen dugu erabaki hau. Paperak dena aguantatzen duenez, iruditzen zaigu atzera egin behar izan ezkerro gaizki funtzionatzen duelako, ez dugula lotsarik izan behar. Baina berriro esango dut, plenoak hartzen du erabakia.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gauza bat da plenoak erabakiak hartzea eta bestea herritarrek esaten dutena kontuan izatea.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik dakidala, mahai horietan ateratzen denari kasu egiten zaio”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Ikus dezagun mahai horrek zer esaten duen eta gero hartuko ditugu erabakiak. Orain galdetegi bat egiten ari da eta ez dakigu emaitzak zeintzuk izango diren. Zein presa du noranzko bikoitza jartzeak?”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Iritzi profesionala aintzakotzat hartu da.”

- KREDITU ALDAKETA. 2. KREDITU TRANSFERENTZIAREN ESPEDIENTEA.2020TRFR0002

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena:

“1.- 2. Kreditu Transferentzien bidez 118.968,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen diren kreditu aldaketak hasiera batean onartzea.

2.- Dirulaguntzen eranskinaren aldaketa hasiera batean onartzea, bertan espediente honen helburu diren partidak xertatuz.

3.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
0240.481.330.00.01	Hitzarmenak	158.584,00	118.968,00	39.616,00
GUZTIRA ...		158.584,00	118.968,00	39.616,00

Gehituko diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
0240.481.330.00.02	Elkarlan Hitzarmena AEK	0,00	850,00	850,00
0240.481.330.00.03	Elkarlan Hitzarm. Aizkorri Mendizale elkarte	0,00	7.147,00	7.147,00
0240.481.330.00.04	Elkarlan Hitzarm. Arane Loinatz abesbatza	0,00	11.950,00	11.950,00
0240.481.330.00.05	Elkarlan Hitzarm. Argizpi	0,00	4.896,00	4.896,00
0240.481.330.00.06	Elkarlan Hitzarm. Arrano kultur elkarte	0,00	13.752,00	13.752,00
0240.481.330.00.07	Elkarlan Hitzarm. Aurtzaka	0,00	17.212,00	17.212,00
0240.481.330.00.08	Elkarlan Hitzarm. Gala balleta	0,00	2.733,00	2.733,00
0240.481.330.00.09	Elkarlan Hitzarm. Bear pintura	0,00	786,00	786,00
0240.481.330.00.10	Elkarlan Hitzarm. Beti bizi	0,00	6.676,00	6.676,00
0240.481.330.00.11	Elkarlan Hitzarm. Buztina zeramika	0,00	2.408,00	2.408,00
0240.481.330.00.12	Elkarlan Hitzarm. Goieniz	0,00	4.605,00	4.605,00
0240.481.330.00.13	Elkarlan Hitzarm. Hijos de Martin y Loinaz	0,00	1.000,00	1.000,00
0240.481.330.00.14	Elkarlan Hitzarm. Igarloi elkarte	0,00	4.432,00	4.432,00
0240.481.330.00.15	Elkarlan Hitzarm. Intxaurpe elkarte	0,00	7.300,00	7.300,00
0240.481.330.00.16	Elkarlan Hitzarm. Lemniskata	0,00	14.490,00	14.490,00
0240.481.330.00.17	Elkarlan Hitzarm. Porteria auzo elkarte	0,00	4.432,00	4.432,00
0240.481.330.00.18	Elkarlan Hitzarm. Ostadar	0,00	10.724,00	10.724,00
0240.481.330.00.19	Elkarlan Hitzarm. Txilibutxof	0,00	3.575,00	3.575,00
GUZTIRA		0,00	118.968,00	118.968,00

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Nahiz eta orain egoera hau izan, urte bukaeran ikusiko da elkarte bakoitzak zer eskaini duen. Beraiekin landutakoa da orain dakarkiguna."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En estas partidas que se crean para subvencionar a las asociaciones, me surge la duda teniendo en cuenta el informe emitido en enero de 2020 por la Secretaria en el sentido de que las subvenciones nominativas son la excepción a la regla general de que tienen que ser en régimen de concurrencia y tienen que estar motivadas. Según la ley las concesiones directas tienen el carácter de excepcionales. El otorgar de esa manera lo que se está haciendo es crear de la excepción una regla general. En la comisión en la que se presentó la propuesta se presentó un informe jurídico y no sabemos por qué razón se ha contratado, cuando previamente existe un informe al respecto.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “La contratación de EKAIN, no sólo es para esto. Con las nuevas necesidades que está generando la Ley, es un apoyo tanto a secretaría como a intervención y está haciendo de enlace con los diferentes departamentos para hacerlo con toda la certeza jurídica. En adelante habrá más convenios que haya que firmar y lo que pretendemos es agilizar los trabajos que tenemos que hacer. Txostenak horri erantzuten dio. Ez da bakarrik honetara egiten dena, baizik eta egiten diren lan guztiak berme juridikoa behar dute.”

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Lo que vemos es que ese informe jurídico se puede utilizar como salvo conducto para poder presentar las subvenciones del modo que vosotros proponeis: nominativas y sin concurrencia.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Guk bilatzen duguna da legeari izkin egin gabe, ahalik eta modu eraginkorrean dirulaguntzak ematea. Adibide bat jartzeko, zoritxarrez herrik kirolak Arrano Elkartek egiten ditu. Konkurrentzia egin eta kanpotik etorri behar zaigu norbait hori garatzeko?. Azkeneko hamarkadan herrian dabilzan elkarteei dirulaguntza ematea bermatzen da. Txostenak ematen dira bermea izateko. Era batera edo bestera egin berme legala behar dute. Helburua da herrian dauden elkarteak jarraitzea egiten dutena egiten.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH Bildu)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

- UDAL ONDASUNEN INBENTARIOA. EGUNERAKETA 2019-12-31ko DATArekiko.
2020EKBO0028

Ezagutzera eman da Antolakuntza/Kontuetaarako Batzordearen proposamena, 2.019ko abenduaren 31ko datarekin egindako Inbentarioaren eguneraketa onartzeari buruzkoa:

UDALA / AYUNTAMIENTO	Kostu historiko Coste histórico	Amortizazio Amortizac.	Neto kontablea/ Neto contable
ONDASUN HIGIEZINAK / BIENES INMUEBLES	68.334.361,42 €	24.858.499,51 €	43.475.861,91 €
ERAIKUNTZAK / CONSTRUCCIONES	21.050.389,87 €	6.969.139,13 €	14.081.250,74 €
TERRENOAK / TERRENOS	10.717.979,69 €		10.717.979,69 €
JOLASTOKIAK / PARQUES	3.537.299,15 €	1.947.238,66 €	1.590.060,49 €
BIALAK / VIALES	28.600.540,93 €	13.944.178,46 €	14.656.362,47 €
LANDA FINKAK / FINCAS RUSTICAS	32.628,27 €		32.628,27 €
AZPIEGITURA / INFRAESTRUCTURA	4.395.523,51 €	1.997.943,26 €	2.397.580,25 €
ERRENTA ESKUBIDEAK / DERECHOS REALES	1.251.408,23 €		1.251.408,23 €
BALORE MOBILIARIOAK / VALORES MOBILIARIOS	11.609.809,22 €		11.609.809,22 €
IBILGAILUAK / VEHICULOS	205.879,54 €	160.763,25 €	45.116,29 €
MOBLERIA / MOBILIARIO	3.529.484,44 €	2.674.203,81 €	855.280,63 €
ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR. / CONC. ADMINIS.	1.093.027,00 €		1.093.027,00 €
GUZTIRA / TOTAL	86.023.969,85 €	27.693.466,57 €	58.330.503,28 €
ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN / INMUEBLES CEDI	5.627.305,57 €		5.627.305,57 €
	91.651.275,42 €	27.693.466,57 €	63.957.808,85 €

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

- TASAK: 2020ko UDALEKUAK. 2020ESEP0005

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

Beasaingo haur eta gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilerari hobetzeko hizkuntza errefortzu zerbitzua jarri zuen martxan Udalak 2017an. Zerbitzuko erabiltzaileen beharrak aztertuta, opor garairako ere euskara erabiltzeko gune bat izatea helburua lortzeko aproposa litzatekeela ikusi zen.

Hori dela eta, Beasaingo Udalak erantzun egin nahi dio errealitate horri eta udaleku itxiak antolatuko ditu Astitzen, 2020ko uztailaren 20tik 29ra 2007-2011 urte bitartean jaiotakoentzat. Gehienez ere 50 plaza izango dira.

APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

- 2/2016 legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
7. artikulua.— Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez.

2.– Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

Horren ondorioz, Herritarrek Batzordeak Osoko bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Beasaingo Udalak 2020ko uztailaren 20tik 29ra antolatuko dituen udalekuetarako ondorengo tasak onartzea:

Seme-alaba 1: 150,00€

2 seme-alaba 255,00€

Familia ugariak:

Seme-alaba 1: 120,00€

Bi seme-alaba: 225,00€

Hiru seme-alaba: 300,00€

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Saiatuko gara gure esku dagoena egiten udal lekuak egin daitezen. Behintzat prest egon eta egin badaitezke, aurrera. Udalekuen helburua, euskara egonkortzea da. 50 plazako udalekuak dira. Lehengo urtean Astitzen egin ziren eta aurten ere hori proposatzen da."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Maddi Imaz andereak (Beasaingo EH Bildu): "Guri iruditzen zaigu udalekuak herritar guztiei iritsi behar zaizkiela eta proposatu nahi dugun tasa ordaindu ezin dezaketen familiei hobaria bitartez laguntza ematea."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Udalekuak denentzat dira. Ez dago salbuespenik. Arazo ekonomikoak dituztenentzat udalean badago bide bat horiei laguntzeko. Norbait etorriko balitz apuntatu nahi duena eta arazo ekonomikoa izan, erantzungo genuke. Hizkuntza errefortzuan profil hori duena badago eta laguntzen zaio. Ez dira kanpoan uzten."

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): "Baina bere horretan udalean ez daude hobaririk aurreikusita, ez?".

Alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du beste udalekuetako prezioak ikusita, Beasaingo udalak eskaintzen dituenarekin aldea dagoela. Euskararen aldeko bezala jarrita dugu baina iruditzen zait prezioa bera ezin dela oztopo izan.

Maddi Imaz andereak (Beasaingo EH Bildu): "Nik hor ikusten dudana da, prezioa ikusita eta hobaririk ez egonda, jendea ez dela apuntatuko, hau da, agian ez da udalera zuzenduko eta esan ezin dut ordaindu. Aldiz, hobarriak jartzen badira eta hori jakinda, errazago apuntatuko dira. Tasak baxuagoak dira, baina egongo da jendea horretara iristen ez dena."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Hizkuntza errefortzua edukiko ez bagenu, jende hori kontrolatu gabe izango genuke, baina jende hori gertu daukagu eta saiakera egiten da jende hori udalekuetara joateko. Ikusita gure prezioa nahiko hobaria dela esango nuke beste batzuekin alderatuta. Ikastetxeekin ere harremanetan gaude eta lanketa egiten dugu. Iruditzen zait detektatu beharko genukeela horrelako jendea balego eta guk moduak jarri. Esan lehengo urtean (lehenengo aldiz egin zirenak), jendea apuntatzea kosta egin zela. Beste garestiagoak diren udaleku batzuk sona handiagoa dute eta horrek eragina du. Gure udalekuetan ondo pasatzea eta

garapen pertsonala kontuan izaten da, baina helburu nagusia euskararen erabilera da. Erakunde bezala horren inguruan apustua egin behar da.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Esan duzu ikastetxeekin ere lanketa egiten dela baina gauden egoeran hori zaila iruditzen zait izango dela. Ez dakit zein lanketa motari egiten diozun erreferentzia.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ikastetxeek nahiz eta beraien jarduna on-line egin guk beraiekin harremana badugu. Batez ere zuzendariarekin dugu harremana. Ez zait iruditzen alde horretatik hankamotz geratuko garenik.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- BERTAKO PRODUKTUEN MERKATURATZEA ETA KONTSUMOA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2020. 2020MEPO0019.

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1. *Udal Gobernuak tokiko produktuen merkaturatzea martxan jarri zuen 2017ko otsailean, hileko lehen larunbatean, merkatuaren jarraipena ziurtatzeko eta denboraldiko produktuak erosteko aukera emateko, astearteetako merkatura joateko zailtasunak dituzten herritarrei. Horrela, ekoizleei eta kontsumitzaileei bertako produktuak zirkuitu laburren bidez merkaturatzea eta kontsumitzea bermatu nahi zaie.*

2. *Idazkaritzaren txostenak adierazten du aurreikusitako moduan sustatu nahi den jarduerak ez dela dirulaguntza kontzeptuaren arabera, baizik eta kontratazioari lotutako zerbitzu-prestazio batena. Kontu-hartzailearen aldetik, fiskalizazio-txostena ere ematen da errepararekin.*

3. *Hala ere, erantsi diren eta onartzeko proposatu diren oinarriak prestatu dira, eta horretarako, 0243.471.431.20.01 kontu-saila jarri da “feria dinamizatzeko dirulaguntza”, honako arrazoi hauengatik:*

-Kontratazioa bideraezina da ekoizle-eskasiagatik eta fakturatzeko zailtasunagatik.

OINARRI JURIDIKOAK

-2/2016 Legea, apirilaren 7koa Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 17.artikulua, 34.

-38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

PROPOSAMENA

Ondorioz, Herritarren Batzordeak Udalbatza Osoari honako akordio proposamena egiten dio:

Lehena: *Oinarriak onartzearen aldeko erreparoa ebatzea eta aurreikusitako laguntzak emateko deialdia egitea, tokiko produktuekin merkaturatzea izateari lehentasuna ematean, herritarrentzat interes orokorrekoak direlako. Horrela, eskualdean tradizio kultureko ohiturak zaindu, desagertzea saihestu eta bertako ekoizpena bultzatu nahi da.”*

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Lehenengo urtean ere oinarriak onartu genituen plenotik pasatuta eta ikusi genuen zein zailtasun dauden horrelako ekoizleak ekartzeko azoka batetara. Gaizki ez banago Oñatiko eredu hartu genuen ikusita han ere antzeko jokatzeko zela. Behintzat gutxieneko

duintasuna ematea lortu dugu. Proposatzen dena da ekoizle horiei babesa eta pizgarri bat ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek jaso dira:

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “En informe adjunto a la propuesta, las bases no cumplen la ley, ya que se trata de una prestación de servicios”.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Guri iruditzen zaigu beste alternatibarik ezean, gutxiengo hau mantendu egin behar dela. Bestea da ezer ez egitea. Bertako produktuen apustu horretan bide hobea bilatu arte mantendu egin behar dugula uste dugu.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Horren ondorioz, oinarri hauek onartu dira:

“Bertako produktuak merkaturatzeko eta kontsumoa sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak. 2020.urtea

Beasaingo Udalaren eskumenen artean “barn merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda merkatu, hornidura-merkatu, azoka lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea,...” dago. Udalaren helburua da hileren lehenengo larunbatean izaten den azoka sustatzea eta horrela bertako ekoizleei nahiz kontsumitzaileei, bertako produktuak zirkuitu laburren bitartez merkaturatzeko eta kontsumitzeko aukera ematea.

1.XEDEA

Hilabete hasierako larunbateko udal merkatua tokiko produktuekin sustatzeko laguntzak arautzea.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu duen diru-laguntza finantzatzeko Udalak 7.000€ euroko kreditua aurreikusia du, 0243.471.431.20.01 partidan.

3. ESKATZAILEAK

Hileren lehen larunbatean izaten den azokara bertako produktuak saltzera etortzen diren ekoizleak.

4. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

Ustiategi bakoitzeko onuradun bakarra izan behar da. Diru-laguntzaren onuraduntzat joko da honako baldintza bereziak betetzen dituen:

-Hileren lehen larunbatean izaten den azokara baserri-produktuak saltzera etortzen dena eta honako baldintzak betetzen dituen:

a) Fruta eta barazki salmentetan, garaian garaiko produktuak eskainiko dira. Gutxienez: 3 produktu.

b) Bestelako produktuetan ez da kopuru minimorik ezarriko, hau da: gazta, ezti, ogia...

c) Seihilabetekoan, gutxienez 4 larunbatetan saldu behar dute. Horren jarraipena Udaleko teknikari batek egingo du.

d) Ekoizleek produktuen izena eta prezioa jartzen duten arbeltxoak jarri behar dituzte euren postuetan.

5. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Ekoizle bakoitzak azokan parte hartutako larunbat bakoitzaren truke 50€ jasoko ditu.

6. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Merkataritza saileko zerbitzuek, eskaerari Udalaren ordezkariak eta ekoizleak sinatutako txostena erantsiko diote, hala badagokio. Hori azokan saldu izanaren frogagiria izango da. Horrez gain, Udalak beharrezkoa deritzon informazioa eskatu ahal izango du.

Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

7. ESKAERAK AURKEZTEA

Agiri hauek erantsi beharko zaizkio dirulaguntzak eskuratzeko eskabideari:

-Naren fotokopia.

-Banku edo aurrezki-erakunde batek igorritako agiria, eskatzailearen izenean kontu korronte bat dagoela ziurtatzen duena.

8. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

9. ESKAERAK AURKEZTEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2020-11-30ean amaituko.

Epea:

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2020-11-30era bitartean.

Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: [http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala](http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala) edo Udalaren erregistroan, l. eranskineko ereduaren arabera.

10. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Kasu honetan, ez da bidezkoa diru-laguntza lortzeko baldintzak egiaztatu behar izatea.

- “COWORKING” GUNEA ERABILTZEAGATIK DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA. 2020MEPO0018

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

Ondorengoak kontuan hartuta:

- *Udalak behin betiko onartu duela 2020-2022 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.*
- *Aipatutako planeko helburu estrategikoren bat tokiko ekonomia sustatzea dela.*
- *“Coworking” guneak goian aipatutako helburu estrategikoa betetzen duenez une honetan, 2020ko oinarriak onartu behar dira.*

LEGERIA APLIKAGARRIA

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egitea.

Lehenik: *2020ko “Coworking” gunea erabiltzeko dirulaguntzen inguruko oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.*

Bigarrenik: *Udalak “Coworking” lokalaren 12 hilabeteetako alokairuaren %50 ordainduko die (BEZik gabe), gehienez ere 1000€, jarduera ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon eta lan egiteko bere etxetik kanpoko leku bat behar duen pertsona fisiko nahiz juridikoei edo enpresa-proiekturen bat garatzen ari diren eta oraindik jarduerarik ekin ez dioten pertsoneri.”*

Alkate jaunak (EAJ-PNV): *“Momentu honetan ez badago ere, iruditzen zaigu mantendu egin behar dela, kudeatzaile gogo hori egon ezkeru.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, oinarri hauek aho batez onartu dira:

“COWORKING” GUNEA ERABILTZEKO DIRULAGUNTZEN INGURUKO OINARRIAK ETA DEIALDIA. 2020. URTEA

Udalen eskumen propioen artean ondorengoa dago: Tokiko ekonomia eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu lanak edo politikak. Horretarako, Udalak helburu gisa du udalerriko enpresa txiki sortu berriek edo jarduera bat gauzatzeko proiekturen bat garatzen ari direnek “coworking” modura lan egitea sustatzea.

1. XEDEA

Coworking-gunea: *Enpresa txikiek, lan mundura hurbiltzeko edo euren kabuz lan egiten duten langileek beren lan jarduera gauzatzeko partekatzen duten lekua da.*

Oinarrien xedea: Coworking guneen bidez ekimen ekintzaileak sustatzeko laguntzak arautzea.

“Coworking”-eko erabiltzaileak:

a) Jarduera ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon eta lan egiteko bere etxetik kanpoko leku bat behar duten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

b) Enpresa-proiekturen bat garatzen ari diren eta oraindik jarduerari ekin ez dioten pertsonak.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak 1.000 euroko kreditua aurreikusia du, honetarako sortutako aurrekontu honetan: 0243.471.241.00.01

3. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

-Helbide fiskala Beasaingo udalerrian izatea edo Beasainen erroldatuta egotea.

- Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda, bost urteko edo bost urtetik beheragoko antzintasuna izatea.

-Jarduera zuzenean garatzea Beasaingo udalerrian kokatuta dagoen zentro pribatu batean, alokairu erregimenean.

-Pertsona juridikoen kasuetan, gehienez hiru langile izatea. (Ez dira irabazi asmorik gabeko elkarteak onartuko).

-Beasainen jabetzan lokalik ez edukitzea, jarduera garatzeko.

4. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Laguntza hauek banatuko dira aurkeztutako eskaeren artean.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

5.DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

6.DIRUZ LAGUNDUKO DEN GASTUA ETA DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA

-Lagunduko den gastua: gehienez ere 12 hilabeteetako lokalaren alokairuaren prezioa (BEZik gabe).

-Diru-laguntzaren zenbatekoa:

Lokalaren alokairuaren hileko/prezioaren %50a. Gehienez ere 1.000€ urtean.

Eskura dagoen kredituarekin aurkeztutako eskaera guztiei aurre egin ezin bazaie, aurkeztutako eskaera guztien artean hainbanaketa egingo da alokairuaren prezioaren arabera.

7. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Agiri hauek erantsi beharko zaizkio diru-laguntzak eskuratzeko eskabideari:

-Eskabide-orria sinatuta (l. eranskina).

-Pertsona fisikoek: NA-ren fotokopia.

-Pertsona juridikoek: IFZren fotokopia.

-Ordezkatze-ahalmenaren fotokopia, kasua bada, eta ordezkariaren NA.

-Langile kopuruari buruzko ordezkariaren aitoren arduraduna.

-Soldatapeko langilerik ez badu, autonomo gisa azken hilean egindako ordainketaren ordainagiria.

-Coworking espazio edo enpresa zentroak eta laguntza eskatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak sinatutako alokairu kontratuaren kopia eta "coworking"-ek eskaintzen dizkion zerbitzuen agiria.

-Hileroko alokairuaren fakturak eta ordain agiriak. Alokairua 12 hilabetekoa izango balitz, abenduaren faktura eta ordainagiria, 2021-01-15a baino lehenago aurkeztu beharko da.

-Deialdi hau egin duen organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du dirulaguntza eskatu duten pertsona edo enpresek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko baldintzak betetzen dituztela. Horretarako, pertsona horiek espresuki oniritzia eman beharko dute. Oniritzirik ez badute ematen, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte interesatuek.

-Jarduera ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen agiria edo enpresa-proiektu egilearen aitoren arduraduna, proiektuaren xedea adieraziz.

8. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2020-11-30ean amaituko.

Epea: Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta 2020-11-30 arte.

- Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: [http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala](http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala) edo Udalaren erregistroan, l. eranskineko ereduaren arabera.

9. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Abenduko faktura aurkeztu ezean (alokairua hamabi hilabetekoa denean), dirulaguntza bueltatzeko prozedurari hasiera emango zaio.

- ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEB-GUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRU LAGUNTZEN OINARRIAK. 2020EUAD0001

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1. 2008ko ekainaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Merkataritzako errotuluak, irudi korporatiboa eta web-gunea euskaraz osorik edo ele bietan/anitzetan jartzeagatik dirulaguntzak emateko oinarriak. Dirulaguntza horien helburua establezimenduen hizkuntza paisaia euskalduntzea izan zen.
2. 2019.urtean dirulaguntza horietan aldaketa batzuk egin ziren, diru-kopurua hazita

LEGERI APLIKAGARRIA

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA

Merkataritzan hizkuntza paisaia euskalduntze aldera, eta gaztelaniaz dauden errotulu nagusia eta irudi korporatiboko elementuen kopurua jaiste aldera, Herritarrak batzordeak Gobernu batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik: *Errotuluen kasuan, dirulaguntza kostuaren %50 izatea, gehienez ere 240 euro izatea.*

Bigarrena: *Irudi korporatiboen kasuan, testua euskara hutsez jarritz gero, kostuaren %50 ordainduko du Udalak eta dirulaguntza gehienez ere 180 eurokoa izatea.*

Hirugarrena: *a) Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %50 izatea dirulaguntza, eta gehienez ere 450 euro.*

b) Web-orria euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %40 izatea dirulaguntza, eta gehienez ere 360 euro.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek jaso dira:

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistas): “Estamos de acuerdo, pero proponemos que se incremente la ayuda que se da a las webs que ofrecen los servicios en más de un idioma.”

Alkate jaunak (EAJ_PNV): “Creemos que es encomiable la labor de quien dispone de la web sólo en euskera, en un mundo tan globalizado. Antes se daban ayudas por tener en euskera y se hizo extensivo a quien lo hace en más idiomas. Nosotros creemos que es un reconocimiento para la gente que trabaja sólo en euskera.”

Xabier Matarranz (EAJ-PNV): “Gaztelaniaz sortzea errazagoa da eta gero egiten dena da itzuli. Gure ikuspuntua kontrakoa da. Meritua du euskaraz sortzea eta ero gerokoa. Gure aldetik

sustatu nahi dena da gauzak euskaraz sortzea eta ez bakarrik itzulpenak. Pentsatzen dugu horren aldeko esfortzua egin behar dela eta horren aldeko esfortzua egiten dutenei errekonozitu.”

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistas): “Yo lo que propongo es que para ambas sea lo mismo. Yo no digo que no tenga mérito crear sólo en euskera. Están dando un servicio, pero yo diría que mérito tienen ambos.”

Maddi Imaz andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk hor kontrako iritzia dugu. Gure proposamena da bakarrik euskara hutsean lana egiten dutenei dirulaguntza igortzea. Pentsatzen dugu sentsibilizazio kanpaina egin behar dela merkatariei euskaraz egitea bultzatzeko. Bukatzeko esan, dirulaguntzen jarraipena egin beharrean dagoela, jakiteko merkatarien betetze maila”.

Xabier Matarranz (EAJ-PNV): “Dirulaguntza hauekin nahi dena da euskara pasaia aldatzea. Batzuetan errotuluak bakarrik egiten dituzte baina kartelak egiteko udalak eskaintzen die bere itzulpen zerbitzua, bai merkataritzak eta baita ere politika linguistikak. Beraien lana ere bada.”

Maddi Imaz andreak (Beasaingo EH Bildu): “Badakit beraien lana dela baina guk haratago ere joan beharko ginatke, zeren eta bakarrik eskaintzearekin ez da nahikoa.”

Xabier Matarranz (EAJ-PNV): “Neri iruditzen zait diru kopuru hauei duen garrantzia eman behar zaiola. Dirulaguntza da. Horrekin ez da guztiz bermatzen helburua. Azkeneko urteak begiratzen baditugu eskaerak handitzen joan dira. Esango nuke dirulaguntzak baino balio handiagoa duela hori kudeatzen duen pertsonak, gainean egoten delako. Hemen garrantzitsua dena da, lanketa. Hizkuntza bat baino gehiagotan funtzionatzen duten web orriak, ikusi besterik ez dago zein galtzen ateratzen den eta zein gelditzen den berritu gabe. Inportantea dena da egiten den lanketa.”

Leire Artola andreak (EAJ-PNV): “Horrelako eskaerak ditugunean, nik uste dut bidaia aprobetxatu egin behar dela lokalak dituzten hainbat kartel euskaraz jartzeko, horretarako gure laguntza eskainiz.”

Idazkari andreak ohartarazi du epe administratiboen etetea dela eta oraindik ez direla oinarriak argitaratuko eta horren ondorioz eskaerak aurkezteko epea txikiagoa izango dela.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Horren ondorioz, oinarri hauek aho batez onartu dira:

“ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA ETA WEB-GUNEAK EUSKARAZ JARTZEKO DIRU LAGUNTZEN OINARRIAK”

1. XEDEA

Deialdi honen xedea jarduera publizitzeko asmoz errotuluetan, irudi korporatiboan eta web orrietan (aurretiko ordainketarik gabe) euskara erabiltzen duten Beasaingo merkatariei eta jardueriei 2020 urterako dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren diru-laguntzak finantzatzeko Udalak 2.000,00 euroko kreditua aurreikusita du, horretarako sortutako aurrekontu honetan: 0243.471.335.30.01.

Gehieneko zenbateko osoaz gain (2.000,00 €), aurkeztutako eskabideak ikusita, zenbateko gehigarri bat onartu ahal izango da, dagokion aurrekontu-aldaketa onartu ondoren, diru-laguntza emateko ebazpena eman baino lehen.

3. ESKATZAILEAK

Dirulaguntza jaso ahal izango dute, aldez aurretik eskatuta, bere jarduera ekonomikoa Beasaingo udalerrian dauden lokaletan egiten dutenek.

Dirulaguntza hauek ezin izango dituzte jaso:

- a) Helburua euskara normalizatzea duten entitateak, hau da, helburu sozial hori duten elkarteak, euskaltegiak.*
- b) Ikastetxe kontzertatuak, entitate publikoak, alderdi politikoak eta sindikatuak.*
- c) Industria-jarduera dutenek.*

4. DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO BALDINTZAK

- a) Dirulaguntza guztiak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak:*

-Jarduera Beasaingo udalerriko lokaletan burutzea.

-Testua euskaraz zuzen idatzita egongo da. Horretarako komenigarria da aldez aurretik Hizkuntza Politika sailean kontsulta egitea.

- b) Errotuluen eta irudi korporatiboaren kasuetan:*

- *Testua euskaraz bakarrik egotea.*
- *Ez da onartuko pertsonaren izen eta deiturak bakarrik edukitzea.*

- c) Web-guneen kasuan:*

- *Beasainen helbide fiskala izatea.*
- *Web-gunea euskaraz bakarrik edota euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan edukitzea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean, euskarazko testuaren portzentajea gainerako hizkuntzen antzekoa izango da, eta lehentasunez sarreran euskarazko hautapena egin behar du.*

5. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Laguntza horiek emateko aurreikusitako hasierako kreditua handitzeko aukera kontuan hartuta, 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie, eta 8. artikuluan adierazitako zenbatekoari.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak dirulaguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

6. DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

7. ESKAERAK AURKEZTEA

Oinarriak argitaratzea eta eskaerak aurkezteko epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2020-10-01ean amaituko.

Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: [http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala](http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala) edo Udalaren erregistroan, l. eranskineko ereduaren arabera.

Aurkeztu beharreko agiriak: Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

- Kasu guztietan: 2020ko jarduera ekonomikoari dagokion gastuen jatorrizko fakturak.
- Errotuluen, web-guneen eta irudi korporatiboen kasuan:

-Errotuluak:

- a) Errotuluaren izena jasotzen duen agiria edo argazkia.

-Irudi korporatiboa:

- a) Laginen bidez egiaztatuko da.

-Web-orriak: Web-gunearen helbidea.

Diru-laguntzaren eskaera behar bezala beteta egon ezean, daturen bat falta bada edo eskatutako agiriren bat falta bada, eskatzaileari (bai pertsonari edo entitateari) 10 egun baliodunetan zuzentzeko eskatuko zaio, eta hori egin ezean, bere eskaera izapide gehiagorik gabe artxibatuko dela adieraziko zaio.

Onuraduna jarduera horretarako beste laguntzaren bat jasotzeko zain edo jasota egonez gero, laguntza horren deskribapen zehatza egin beharko du, eta dirulaguntzen baturak inoiz ezingo du burututako gastuaren %100 baino gehiago izan.

8. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

1. Errotuluak:

Kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 240 euro.

2. Irudi korporatiboa:

Kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 180 euro. Dirulaguntza gehienez ere, 180 eurokoa izango da.

3. Web-orriak:

a) Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 450 euro.

b) Web-gunea euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %40 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 360 euro.

9. DIRULAGUNTZEN BALDINTZAK EZ BETETZEA

Kasu honetan, ez da bidezkoa diru-laguntza lortzeko baldintzak egiaztatu behar izatea.”

- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA HERRILAB PROIEKTU PILOTUAREN JARDUERA PLANA EZARTZEKO ETA EBALUAZIOA EGITEKO, UDALERRIAN KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA SUSTATZEA AHALBIDETZEKO. 2020-2023 EPEALDIRAKO. 2020BOBE0001

Ezagutzera eman da, Herritarrak batzordeko proposamena, hau da:

“HerriLab proiektu pilotuaren jarduera plana ezartzeko eta ebaluazioa egiteko, Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatzea, iraunaldia, 2023-12-31 bitartekoa izanik.

Bi aldeen eskubide eta betebeharrak atxikita doan testuan azaltzen direnak izango dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek jaso dira:

Yolanda Hernández andreak (Beasaingo EH Bildu): “Aurka gaude, herritar guztien errealitatea kontuan hartzen ez duelako.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik uste dut aurrera pausoak ematen ari garela. Lehenengo berdintasun plana egin zenean, 53 pertsonen parte hartu zuten. Kasu honetan 350 pertsonendako lagina dugu eta herriko 20 industrientzako. Nik usten dut lagin hori guretzat garrantzitsu dela. Gure berdintasun teknikaria atzo harrituta etorri zen. Norma Vazquez teknikariarekin bilera izan zuen Aldundian eta esan zion Herrilab proiektuaren helburua dela gizarte berri bat markatzea eta gizarte-eredu berria sortzea Beasainen. Niri deigarria egiten zait. Proiektu horrek, 20 enpresa, ikastetxeak eta herritar lagin bat hartzen du aintzakotzat. Jasota geratzea nahi nuke.”

Yolanda Hernández andreak (Beasaingo EH Bildu): “Esan duzu 20 enpresek parte hartzen dutela, baina badaude hainbat sektoretako enpresak kontuan hartu ez direnak, adibidez, etxe garbitzailek, erresidentzietan lan egiten duten pertsonak, jan geletan lana egiten dutenak, zaintza orokorrean. Agian enpresak ez dira Beasaingoak baina bai, langileak. Ez dakit zein enpresa diren, baina hemen azaltzen direnak baino askoz gehiago dira.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Kontua da lagin bat hartzen denean zenbateraino aintzakotzat hartzen den. Inportantea da profilak kontuan izatea. Bestela ez da aurrera egiten. Oker ez banago zuek proposatutako etxer etzeko enpresa batengana jo genuen eta ez genuen erantzunik ere jaso. Orain arte proiektu honek emandakoa ez dela makala esango nuke. Deialdia irekia izan da, edonork parte hartu dezan.”

Yolanda Hernández andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guretzat parte hartzea ez da hain zabala izan. Gure botoa aurkakoa da.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistas)

Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin hitzarmen honen edukia onartu da:

“

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, HERRILAB PROIEKTU PILOTUA EZARTZEKO ETA EBALUAZIOA EGITEKO, UDALERRIAN BIZITZA PERTSONALAREN, FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA SUSTATZEKO

ESKU HARTZEN DUTE

Alde batetik, Markel OLANO ARRESE jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean eta ordezkari gisa, 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 26.5.c) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Eta, bestetik, Aitor ALDASORO ITURBE jaunak, Beasaingo alkateak, Udalaren ordezkari gisa, Honetarako eskumena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikulua ematen dio eta betearazten du 2020-04-30ean udalbatza osoak hartutako erabakia hitzarmen honen edukia onartzeari buruzkoa.

Bi aldeek, bakoitzak bere erakundearen ordezkari modura, hitzarmen hau sinatzeko behar besteko gaitasuna aitortu diote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE

I.- Kontuan hartuta 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduketara gidatu eta bideratuko duten printzipio orokorrak dira, besteak beste, genero ikuspegia integratzea eta beste erakundeekin lankidetzan aritzea eta beren jarduerak koordinatzea emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, hartara euskal herritar guztien artean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko.

4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoak, 6. artikuluko h) paragrafoan jasotzen du foru aldundiei dagokiela “Sustapen-neurriak ezartzea, udalek eta gainerako toki-entitateek bitarteko materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak izan ditzaten, emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatutako programak eta jarduerak garatu ahal izateko”.

II.- Bestalde, lege berean, hau dio 35. artikulua (Erantzunkidetasuna): “Euskal herri-administrazioek, hain zuzen, gizonen etxeko lanetan ere –pertsonak zaintzea barne– erantzukizunak har ditzatela sustatuko dute. Orobat, egokiak diren neurriak hartuko dituzte

49. artikuluan (erkidegoarentzako gizarte zerbitzuak) jasotakoa garatzeko arauetan gizonen ere arlo horretan erantzukizunak hartzea bultzatuko duten neurriak jaso daitezten.”

Halaber, 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 8.3 artikuluen e) paragrafoan ezartzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari dagokiola “Gizarte eta erkidego baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitzeko proposamena egin eta bultzatzea, emakumeen eta gizonen bizitza pertsonala, zein familia eta lan bizitza bateratu eta zaintzan erantzunkidetasuna sustatzeko”.

Arau berean, 18.1 artikuluen b) paragrafoak jasotzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren jardura esparruetako bat dela “Gipuzkoako udalerrietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoak babestea”.

Azkenik, Kontziliazio erantzunkiderako Foru Planak, 2017ko ekainaren 27an onartutakoak, laugarren ardatzean jasotzen du HerriLab izeneko lan eremua, Lurraldeko udalerrietan kontziliazio erantzunkideko praktikak abiarazteko laborategia. Horrela, planak berak ekintza zehatz bat proposatzen du esperientzia pilotua Gipuzkoako tamaina ertaineko eta enpresa jardura nabariko udalerri batean garatzeko, horrela, ikaskuntzak ateratzeko Lurraldeko beste udalerrientzat erreferente izan daitezten.

HerriLab Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontziliazio Erantzunkiderako Planean definitutako aldaketa metodologian sartzen da. Ekintza pilotu moduan eratu da, udalerri batean berdintasunaren aldeko eragin positiboa sortzeko. Aldi berean, ikasteko eta esperimendatzeko gune bat da, balioko duena, era berean, Gipuzkoako lurralde osoarentzat ikasteko eta ekarpena egiteko gune izateko.

III.- Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Beasaingo Udalak HerriLab proiektu pilotuari ekin zioten 2018. urtean, udalerri horretan kontziliazio erantzunkidea sustatzeko. Orduan, udalerriak gai horren inguruan zituen beharrei buruzko informazioa identifikatu eta jaso zen. Diagnostikoa egiterakoan Beasaingo eragile ekonomikoek, hezkuntza eragileek, familieek, eta herritarrek oro har parte hartu zuten.

Adostutako diagnostikoan oinarrituta, Ekintza Plana egin zen 2019-2023 aldirako. Ondoren, behin plana onartuta, haren ezarpenari ekin zitzaion, talde eragilearen sorrerarekin. Azken batean, 2020tik aurrera, Ekintza Planean jasotako ekintzak eta prozesuak martxan jarriko dira, Beasain eta bere herritarrak «udalerri erantzunkide» bihurtzeko bidean aurrera egin ahal izateko.

HerriLab proiektu pilotua garatu ahal izateko, hitzarmen hau egitea adostu da, klausula hauekin:

KLAUSULAK

I.- XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Beasaingo Udalaren arteko lankidetzaren esparrua ezartzea, alde bakoitzak HerriLab proiektu pilotuaren jardura plana ezartzeko eta ebaluazioa egiteko bere gain hartuko dituen konpromisoak arautzeko. Proiektu horrek ahalbidetuko du udalerrian kontziliazio erantzunkidea sustatzea.

II.- SINATZAILEEK BEREN GAIN HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK.

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartzen dituen konpromisoak.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak ekarpen ekonomikoa egiteko konpromisoa hartzen du jarduera plana gauzatzeak eta ebaluazioa egiteak dakartzan gastuen zati bat finantzatzeko.

- Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak 30.000 euro jarriko ditu 2020, 2021, 2022 eta 2023 urteetan, aurrekontuko kontu sail hauen kargura:

1.0170.700.461.01.02.2020

5.0170.700.461.01.02.2021

5.0170.700.461.01.02.2022

5.0170.700.461.01.02.2023

- Berdintasuneko eta kontziliazio erantzunkideko aholkularitza teknikoa eskaintzea, proiektuaren ikuspegi egokia bermatzeko asmoz.

- Proiektuan laguntzea eta jarraipena egitea, aurretik ezarritako bideak erabiliz.

- Proiektuaren emaitzak Lurraldeko beste udalei eta Gipuzkoako herritarrei ezagutzera eman eta zabaltzea, behar izanez gero etorkizunean aplikatzeko.

b) Beasaingo Udalak bere gain hartzen dituen konpromisoak.

- Laguntza teknikoa kontratatzea Beasainen bizitza pertsonalaren, familiarren eta lanaren kontziliazio erantzunkidea sustatzeko Herrilab proiektuaren ekintza plana inplementatzeko eta ebaluatzeko.

Laguntza tekniko horrek emakumeen eta gizonen berdintasunean formazio espezializatua izan beharko du, herri administrazio edo unibertsitate batek behar bezala egiaztatua, eta baita ere behar bezala egiaztatutako esperientzia proiektuen kudeaketa teknikoan, gizarte, enpresa eta/edo erakunde eremuetan, berdintasunaren ikuspegitik.

Kontratazio hori egiteko, urtean 50.000 euroko aurrekontuko kontu sail bat esleitu da 2020-2023 aldian. Horietatik, udalak 20.000 euro jarriko ditu, eta gainerako ekarpena Gipuzkoako Foru Aldundiak osatuko du.

Lizitazioan beherapenen bat gertatzen bada, beherapen horren zenbatekoa proiektua gauzatzera bideratuko da, hurrengo atalean jasotzen diren terminoetan:

- 2019-2023 udal ekintza planean jasotako ekimenak garatzea. Horretarako, behar diren baliabideak bideratuko dira, eta hiru esparrutako eragileek (enpresa bat edo herriko enpresa elkarte bat, udalerriko ordezkari instituzional bat eta gizarte eragileak) parte hartuko dute, planaren zeharkakotasuna bermatzeko.

- Gizarteratze plan bat prestatu eta gauzatzea, jarduera plana garatzen den aldi berean, ezagutzera emanez eta zabalduz adostutako jarduera planari buruzko informazioa, bertan jasotako ekintzak, eta horien ondorengo garapena, udalerriko eragileekin elkarlanean.

- Jarduera planaren emaitzen ebaluazioa egitea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Herrilab programaren lorpenak eta hobetzeko arloak identifikatzeko.

- Diagnostikotik hasita ebaluaziora bitartean aurrera eramandako prozesua sistematizatzea, ikasitako guztia oinarritzat hartuta prozesua beste udalerrri batzuetan aplikatu ahal izateko.

3. Erakundeen arteko koordinazio eta jarraipen bide egokiak, eraginkorrak eta efizienteak ezartzea HerriLab proiektuaren bilakabide egokia bermatzeko.

4. Proiektuarekin zerikusia duen jarduera ororen kanpoko komunikazioan bi erakundeen aipamena egiten dela bermatzea.

- Sexu aldagaia eta genero adierazleak sartzea proiektuaren esparruan egiten den azterketa eta jarraipeneko lan guztian.

III.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA.

Bigarren klausulan Beasaingo Udalaren alde adierazitako zenbatekoa 2020-2023 aldiko ekitaldi bakoitzari dagokion urteko abenduan ordainduko da, entitate onuradunak bosgarren klausulan aipatzen den kontu zurigarria aurkeztu ondoren.

IV.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

1.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira jarduerak zuzenean dakartzanak.

2.- Bidaien gastuen gehieneko tarifak bat etorriko dira Eusko Jaurlaritzaren 16/1993 Dekretuak, otsailaren 2koak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, eta dekretu hori aldatzen duten 267/2000 Dekretuak, abenduaren 19koak, eta 121/2006 Dekretuak, ekainaren 13koak, ezarritako baremoarekin.

3.- Diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez, aplikatuko da, adierazitakoaz gain, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 30. artikuluan ezarritakoa, nahiz eta egindako gastutzat hartuko den, ez bakarrik justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena, baizik eta baita dirulaguntza jaso duen entitate onuradunak oraindik ordaindu gabe duena ere, baldin eta gastu hori justifikatuta badago dagozkion fakturen edo balio bereko frogagiriaren bidez.

V.- KONTU ZURIGARRIA.

Hitzarmen honetan jasotako dirulaguntza zurrizko, egindako jarduerak egiaztatzen dituen kontua aurkeztu beharko da urtero, 2020-2023 aldiko ekitaldi bakoitzeko azaroaren 30a baino lehen, baino lehen, honako hauek bilduta:

- Proiektuaren memoria, urte bakoitzean zehar egindako lana, lorpenak, zailtasunak eta egindako ikasketak jasotzen dituen.

- Diruz lagundutako jardueren gastuak sailkatzen dituen zerrenda, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data identifikatuta.

- Fakturak edo merkaturako trafiko juridikoan antzeko frogabalia edo eraginkortasun administratiboa duten frogagiriak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, eta, hala badagokio, ordainketaren frogagiriak.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo laguntzak, zenbatekoa eta jatorria barne, xehetasunez jasotzen dituen zerrenda.

- Behar izatekotan, dirulaguntzen foru arauak 30.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, eskatu behar izan dituen 3 aurrekontuak.

- Hala badagokio, dirulaguntzaren itzulketaren ordainagiria, aplikatu gabeko soberakinen kasuan.

VI.- BEASAINGO UDALAREN BETEBEHARRAK.

a) Kontabilitatean jasotzea hitzarmen honetan aurreikusitako foru ekarpenak.

b) Hitzarmen honen xedearekin zerikusia duten komunikazio, argitalpen, eta abarretan hizkeraren eta irudien erabilera ez-sexista bermatzea.

c) Gipuzkoako Foru Aldundiak deitzen dituen bileretan parte hartzea, horretarako ahalik eta parte-hartzerik handiena egon dadin beharrezko bide eta bitartekoak ezarri.

d) Oro har, betetzea 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, ezarritako obligazioak, eta hitzarmen honetatik eratorritako gainerakoak.

VII.- JARRAIPEN BATZORDEA.

1. Jarraipen Batzordeari zeregin hauek egitea dagokio:

- Erakunde sinatzaileek beren gain hartutako lankidetzaren jarraipena egitea.
- Erakunde sinatzaileen artean informazio bidea izatea.
- Hitzarmenaren eraginkortasuna areagotze aldera neurriak proposatzea.
- Proiektuaren azken ondorioak prestatzea eta berdintasunaren ikuspegitik egon daitezkeen orientabide praktikoak identifikatzea, bai edukiari dagokionez bai laneko prozesuari dagokionez.

2. Batzordea gutxienez lau hilean behin bilduko da eta, betiere, aldeetako batek deitzen duenean.

VIII.- DIRULAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA.

1. Hurrengo paragrafoan xedatzen dena ezetsi gabe, hitzarmen honek xedetzat duen dirulaguntza bateragarria da beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk –izan estatukoa, izan Europar Batasunekoa, izan nazioartekoa– eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderek.

Dena dela, dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da handiagoa izan, bera bakarrik nahiz beste subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, xede duen jardueraren kostua baino.

2. Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzen edozein aldaketak eta, edozein kasutan, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuen aldetik emandako laguntzak aldi berean jasotzeak, emandako dirulaguntza aldatzea ekarri ahal izango dute.

IX.- DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAK AZPIKONTRATATZEA.

Diruz lagundutako jarduera burutzeko, behar den ehunekoa hirugarren bati azpikontrata dakioke, dirulaguntzaren % 100era arte. Inoiz ezingo dira azpikontratatu balio erantsirik sortu gabe diruz lagundutako jardueraren kostua gehitzen duten jarduerak.

X.- HITZARMENAREN INDARRALDIA ETA IRAUNGIPENA.

Hitzarmena 2023ko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean.

Hitzarmen hau iraungiko da kontratua bete izanagatik edo jarraian zehazten diren desegiteko arrazoiren batengatik:

- Hilabete aurretik abisatu ondoren, sinatzaileek hitzarmena desegitea adosten badute.
- Bi aldeetako edozeinek ez baditu bere konpromisoak betetzen.
- Zuzenbidearen arabera beste edozein arrazoiren bat gertatzen bada.

XI.- HITZARMENA EZ BETETZEA.

Beasaingo Udalak ez badu betetzen hitzarmen honetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarrita dauden baldintzetakoren edo betekizunen bat, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du erabat edo neurri batean, eta jasotakoa itzuli beharko du osorik edo zati batean legozkiokeen berandutze-interesekin batera, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoak, 35. artikuluan eta hura garatzen duen erregelamenduko 63. artikuluan (24/2008 Foru Dekretua, apirilaren 29koa) eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera. Halaber, erantzukizunak eska lekizkioke, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Bete gabe utzi dena mailakatzeko, proportzionaltasunaren irizpideak erabiliko dira, egindako lanen arabera onuradunak programa zer neurritan burutu duen eta zenbateko dirulaguntza jaso duen kontuan hartuta.

XII.- ARAUBIDE JURIDIKOA.

- 1. Honako hau hitzarmen administratiboa da. Sor litezkeen auziak, azken batean, Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan aurkeztu, argitu eta erabakiko dira.*
- 2. Hitzarmen honetan ezarritakoaz gain, ondorengo hauek aplikatuko dira: 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa, eta hori garatzeko erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutakoa.*

Eta aurreko guztiarekin ados egonik, bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzen dute.”

4.- BERRI EMATEA:

Ezagutzera eman dira Ebazpen hauek:

- 2019ko ekitaldi ekonomikoaren likidazioari buruzko Alkatearen Dekretuak. 2020LIPR0001
- Kontuhartzailearen txostena: Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa. 2020LIPR0001
- 2020ko otsailaren 24tik 2020ko apirilaren 26ra arte emandako Ebazpenak.
- 2020ko otsailaren 24tik 2020ko apirilaren 26ra arte kontratu txikiei buruz emandako ebazpenak.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Berriro ere detektatu dugu ebazpen batzuetan izen abizenak azaltzen direla. Jakitun gara eta saiaturako gara konpontzen.”

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

LIKIDAZIOA

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Alde batetik poztekoa da ditugun emaitzak, egiaztatzen delako udalaren egoera ekonomikoa ona dela, baina argi dugu Udala ez dela enpresa bat eta horrek sortzen digun zalantza da ea nahiko giza-laguntza ematen ditugun. Diru hau izan beharko litzateke beharra duten beasaindarrentzat.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Guri iruditzen zaigu dugun dirulaguntza estruktura ona dela eta oreka bat dagoela. Eskumena dirulaguntzena ez da gurea bakarrik. Beste erakunde batzuekin landu beharreko gaia da. Ongizate ikuspegitik gure erkidegoan hobeto gaudela iruditzen zait beste erkidego batzuekin erkatuta. Remanentea ondo egoteak, zer pentsatzea ematen digu. Badira udalak, zailtasun administratiboak izateagatik, urte betean egin beharreko inbertsioak bi urteetan

egiten dituztenak. Hori izan daiteke ere gure zailtasuna, hau da, administratiboki egin beharrekoak askotan luzatu egiten dituzte epeak eta ezin izaten da urtean bertan inbertsioak exekutatu. Horrek egiten du gerakina igotzea. Egoera bai, ona da. Zuhurtziaz jokatu behar dugu. Orain COVID-19 dela eta izan ditzakegun beharrak hasi besterik ez dira egin. Udazkena gogorra izango da eta beharbada, hor ere tira egin beharko dugu remanentetik. Hobe da horrelako poltsa izatea beharrak sortzen badira aurre egiteko.”

Hasier Agirre jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Kontratu txikietan gauza bat ez dugu ulertzen. Alkartasuna Lizeoko ebakuaziorako obran, kontzeptu eta kopuru berdinarekin, bi kontratu azaltzen dira.”

Leire Artola andreak (EAJ-PNV): “Obra guztiak behar izaten dute obra zuzendaritza (arkitektoa) eta obren egikaritze-zuzendaritza (aparejadorea). Horregatik dira bi kontratu txiki.”

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistas) esan du argazki bat bidaliko duela Artzai-enearen gainean dauden arbolak nola dauden ikusteko eta kontuan izateko dagoen arriskua egun hauetan dabilen haizeagatik, .

Xabi Matarranz jauna (EAJ-PNV) gogorazi du horretarako App aplikazioan intzidentzia atala dagoela eta jendeak erabiltzen duela.

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu) gogorarazi du COVID-19 dela eta ez dela inolako proposamenik aurkeztu dirulaguntzak emateko eta momentu aproposa dela zerbait aztertzeko eta onartzeko gai honen inguruan.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Agian ez nuen garbi hitz egingo bozeramaile taldean. Errepikatu egingo dut. Merkatarien ordezkartza batekin bilera egin genuen pasada astean eta datorren astean ere beste bat dugu. Dirulaguntzak ondo ikusten ditugu eta tasak kentzearena ere bai, baina adibidez, urarena kentzekotan Kontsortzioak ere zer esana izango luke eta horregatik berarekin gaude harremanetan. Zaborrena kendu behar bada, Sasietak zer esana izango du eta berarekin gaude harremanetan. Tasen inguruan, ordea, Foru Aldundiak Dekretu bat onartzen ez badu, ezingo da tasak kobratzeari utzi. Ari gara lantzen eta zuekin ere komentatuko dugu. Merkatariekin izandako bileran proposamen bakarra ez zuten egin. Badirudi lantzen ari direla eta datorren asteko bileran entzutea tokatzen zaigu. Saiatuko gara adosten zeren eta herri guztiak laguntza horiekin ari dira eta gu ere bai. Bonoak daude, segurtasun-ekipoak eskuratzeko laguntzak, tasak kentzearena...”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk gure borondatea berresten dugu, denon artean laguntzak adosteko eta ahal den neurrian ahalik eta azkarren ateratzeko.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Tabernarien artean ere iritzi ezberdinak daude. Batzuek esaten dute baldintza batzuetan irekitzea, beraien aurka joan daitekeela, luzera begira kalteak izan ditzaketelako. Irekitze hori goitik emandako aginduak dira, baina batzuek ez daude irekitzearen alde baldintza batzuk ematen ez badira. Beste batzuek, aldiz, lehenbailehen ireki nahi dute. Iruditzen zaigu orain bakarrik ez direla dirulaguntzak eman behar merkatarientzako. Gerora ere beharra izango dute. Intentzioa da, ahal dela, adostasunez ateratzea dirulaguntzak.”

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistas) esan du beraiek ere gai honen inguruan ekarpenak egiteko borondatea dutela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak eta berrogeita hamabost minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.